



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2014/05/21

BILERA ZENBAKIA: 5

ORDUA ETA LEKUA: ARRATSALDEKO 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: 11 parte hartzaile (4 gizonezko eta 7 emakume)

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Egindako ekintzak.

- a. Herri Urrats: Aurten jende gutxiago baina positiboa. Deialdia zabalago egitearena dudatan jartzen da, izan ere jende gehiago joango balitz agian ez legoke azpiegiturarik bertarako.
- b. Urkiko jaiak: Bertako ordezkariak ez bazegoen ere jaiak ondo joan direla dirudi, larunbatean eguraldi exkaxa pena.
- c. Txakolindegia: Dozena bat lagun eta oso ondo. Jende asko joanez gero ere ekintza bideratzeko zailtasun gehiago.
- d. Aste Santuko gazte ekintza: 3 egunetan ireki zen. Ume gutxiago baino ekintzak ondo joan ziren. Data zailak izaten dira asmatzeko.

2. Aurrera begirako ekintzak:

- a. Pomada ikastaroa: Ekainak 13, arratsaldeko 6etan. Belarrak bertan erakustekotan geratu dira. Bila joatekotan arazoa izan ere bakoitza punta eta denboraldi desberdinetan jaso behar bai dira. Txosten bat emango da argazki eta informazioarekin. Printzipioz deialdia herrikoei egingo zaie, lekua badago kanpokoei ere deia egingo zaie. Udala egingo da gastuen kargu. Partaideentzat dohainik.
- b. Oriora irteera: Ekainak 21. Deialdia pantailak, e-mailak, Hitza, ea taldetxo bat biltzen den.
- c. Dantza entsaioak San Juan: Deialdia herri mailan. Herriko gazteez gain bestelako jendea ere biltzea bilatzen da. Entsaioak ekainak 9,16,23. Entsaioak 6etan.



- d.** Ekainak 6: Mintza lagun amaiera festa 7:30etan . Afari merienda moduko bat egitea pentsatzen da plazan.
- e.** Herri eguna: Ekainak 14, egitarau gehiana lotuta dago gauzatxoren bat lotzea falta. Jubilatua eta Elkartea triki poteorako irikitzeko prest daude.
- f.** Zinema: Uztailean ongizatearen inguruko filmak. Ordua 8etatik 9etara. Udaletxeko gelan. Ostegunetan Ekainak 26an hasita.
- g.** San Juan Sua: Eskaria egin beharko da. Sardinak, sua, antortxak, musika ekipoa , edaria parrilla beharko dira. Eskaria udaletxean egin beharko da.
- h.** Gaztedia:
 - i.** Apar festa: Maiatzaren 26rako aurreikusita.
 - ii.** Ekainaren 2an, hurren herriko 2 logoen artean aukeraketa egingo da.
 - iii.** Gurasoekin ere balorazioa egingo da.
 - iv.** Gaztelekua ekianean itxiko da.
 - v.** Berdinbidean. Ekainak 22, gazte festa izango da zaldibin. Ikusten da proiektuarekin edo ekintzekon ez dela asmatu, hausnarketa egin beharko da.
 - vi.** Pala txapelketa. Gazteak tabernarekin eta oso ondo antolatu ziren, gurasoek ez zuten gehiegi parte hartu.
- i.** Eskola:
 - i.** Pala txapelketa. Eskola aldetik oso balorazio positiboa, gainera pilotalekuari erabilera ematen hasi zaio. Hurrengo urtean ere errepikatzen asmatzen dira.
 - ii.** Eskolako abestiaren grabaketa: Ekainaren 4ean izango da. Talde eta eragile ezberdinetatik bakoitzetik bi lagun elkartu nahi dituzte. Udaletxea, jubilatua, arbel-aitz, urkia, mintzalagunak, ijiti kirol elkarteak, guraso elkarteak,



parrokikoak, gaztelekukoak, gazte asanbladakoak...

3. Jaietako batzordearen sorrera:

- a. Hurrengo bilera ekainak 2, arratsaldeko 19:30etan udaletxean.
- b. Kuadrillak osatu behar dutela erabakitzen da.
- c. 9 kuadrilla identifikatzen dira eta bakoitzetik 2 lagun.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Ekainaren 18-an egingo dugu, asteazkena, arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

1. Aurreko ekintzen balorazioa
2. Aurrera begirako ekintzak
3. Nerabeen zerbitzuan gurasoen parte harzea lortu.